

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Enpresek bezeroak behar dituzte eskeinitako ondasun eta zerbitzuak kontsumitzeko eta horrela, enpresak diru-sarrerak eta etekinak lortzeko. Hori dela eta, bezeroak erakarri behar dira eta behin lortuta, bide berean jarraitzea bezero kopuru berdinak edogehiago etortzeko.

Teknologia berriekin, bezeroekiko bi harreman mota eratu ahal daitezke. Alde batetik, harreman pertsonal bat izan ahal du bezeroekin, hau da, aurrez aurreko harremana. Hauek arruntak dira nagusiki enpresa txikietan, enpresa zaharretan edota lususco enpresetan. Beste alde batetik, gaur egun gero eta gehiago eratzen den harremana automatizatua da. Honek, web-aplikazioen bidez ezartzen da, hau da, mugikor, ordenagailu, tablet... bidez. Teknologia gaur egun, gehien erabiltzen den gauza da, batetik globalizazioa dela eta, eta bestetik, askotan erozoagoa delako. Gaur egungo enpresa guztiek sare sozialak dituzte eta haien aplikazioak eratu dituzte ondasun eta zerbitzuak gehiago eta era erraz batean saltzeko asmoz. Gainera, internet publizitatea egiteko aukera ezin hobea da, beraz, bezeroekin harremana izateko beste modu bat eskaintzen du.

Gure elkarteari dagokionez, bai harreman pertsonala baita automatizatua ere erabiliko dugu bezeroekin kontaktua mantentzeko.

Gure funtzioak eta zerbitzuak kontuan hartuta, ezinbestekoa da harreman pertsonal sendo bat izatea bezeroekin konfidantza sustatzeko eta funtzioak ahalik eta hobeto egiteko. Horretarako bulegoak eta kontsultoriak ditugu eta gure atak beti prest daude edozein zerbitzu eskaintzeko prest (legala, judiziala, psikologikoa...)

Beste aldetik, izugarritzko garrantzia du ere gure elkarteak egiten duena ezagurazteak eta eman nahi dugun mezua ahalik eta hurrunen iristea. Hori dela eta, harreman automatizatuak ere zaintzeko beharra daukagu. Horretarako sare sozialak erabiltzen ditugu, hala nola Facebook edo Instagram, nagusiki azken hau jende gaztearekin komunikatzeko, hau da,

gure bezero garrantzitsuenekin. Sare sozialen bitartez, egiten ditugun ekintza guztien berri modu erakargarri batean emango dugu.

Gainera interneten bidez ere publizitatea eratzeko aukera daukagu, izan ere web orrialde bat daukagu. Bertan ondorengo informazioa topatuko dugu:

- Gure erakundearen funtsa eta helburua
- Kirol-berdintasunaren inguruko datuak, informeak eta estatistikak
- Gure egiten informazio zehatza: egutegia, ordutegia...
- Elkartearekin kontaktuan jartzeko bideak.

Azkenik, bezeroak erakartzeko kontuari begira, gure kasuan ez da beharrezkoa teknikarik erabiltzea bezeroak lortzeko, izan ere, eskaintzen ditugun zerbitzuak gizartea hobetzeko baitira, hortaz, bezeroak izaten ditugu beti.